

KLIMA-ALDAKETA

OIARTZUNGO ESKOLAKO AGENDA 21



UDALEKO ORDEZKARIEK IKASTETXEEN ESKAEREI ERANTZUN DIETE



Aurreko ikasturtean Oiartzungo Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten herriko ikastetxeek zarataren gaia landu zuten. Urteroko ohiturari jarraituz, herriaren egoera aztertzean ikasleek antzemandako hutsuneak ezagutzera emateko asmoz, ekainean udal ordezkariekin saio berezia antolatu zen. Horrela, ikasleek Udalarari zarata gutxitzeko hainbat proposamen luzatu zituzten alkateari eta ingurumeneko zinegotziari eta proposamen bakoitza banan-banan aztertuko zituztela hitz eman zuten.

Horrela, ikasleek egindako eskaerei erantzuteko foroa antolatu zuen Udalak urriaren 23an. Oiartzungo kalitate akustikoa hobetzeko asmoz, besteak beste, Udalak ondorengo jarduerak burutu ditu:

- Zaratari buruzko ikerketa egin zuen iaz.
- Motordun trafikoari mugak jartzea eta oinezkoen guneak zabaltzea edo handitzea (espalo berria Lintzirin poligonoan, Altzibar sarrera eta Legarreko aldapan, etab.).
- Bizikleta-bideen sarea handitzen joatea.
- Taxi-bus zerbitzuko autoetako bat elektrikoa den batengatik ordezkatzeko (auto elektrikoek zarata ez sortzeaz gain, askoz gutxiago kutsatzen dute –klima-aldaketa eragiten duten eta airea kutsatzen duten gas gutxiago emititzen dituzte-)
- Zarata eta dardaren udal-araudia berrikustea eta berritzea.
- Zarataren aurkako ekintza-plan bat prestatzea eta onartu ondoren, bere edukia ezartzea.

KLIMA-ALDAKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK

Ikasturte honetako gaiari buruzko ezagupenak zabaltzeko asmoz eta klima-aldaketan eragiten duten alderdiak, mundu mailako arazo honek tokiko mailan eragiten dituen inpaktuak, etab. zeintzuk diren azaltzeko, jarduera ezberdinak garatu ditugu; hala nola:

- AEMET agentziak Igeldon duen eguraldiaren behatokia bisitatu zuten 4. Mailakoek.
- Ikasleen arteko marrazkien eta logotipoen lehiaketa antolatzea. Irabazlea ingurumen batzordeko ordezkariak aukeratu dute.
- Material didaktiko ezberdinekin klima-aldaketaren gaiari sakontzea.

Eskolako Agenda 21en metodologia jarraituz, klima-aldaketaren gaia landu eta arazo horren inguruan sentsibilizatzeaz gain, gure ikastetxearen egoera aztertzen ari gara eta hurrengo hiru hilekoan Oiartzungo egoera zer nolakoa den ikertuko dugu ikasle guztion parte hartzeari esker. Klima-aldaketa gai konplexua denez, batez ere energiaren ereduari heldu diogu ikasturte honetan.



OHITUREN ALDAKETAK ERAGINEZ ENERGIAREN KONTSUMOA MURRIZTUKO DUGU

Oarsoaldea eskualdeko garapen agentziaren koordinazioarekin eta eskualdeko udalen babesarekin, eskualdeko zenbait ikastetxe 50/50 egitasmoan parte hartzen ari gara. Elizalde herri-eskola eta institutua dira Oiartzuneko proiektuan parte hartzen ari direnak (Elizaldez gain eskualdeko beste 3 ikastetxeek ere bat egin zuten egitasmoarekin).

Proiektu honek ikastetxean kontsumitzen dugun energia nahiz ura aurrezteko eta eraginkortasuna handitzea bilatzen du eta horretarako ezinbestekoa da ikasleen, irakasleen eta ikastetxe gainerako eragileen ohituretan eragitea. Egitasmoaren jarraipena egiteko asmoz, ikastetxean Energia-batzordea sortu dugu (protagonismo nagusia ikasleek dute eta eskola komunitatea osatzen duten estamentuen ordezkariak ere badaude, udal ordezkariekin batera). Aldi berean, gela bakoitzean energia-ardura ere badugu eta arduradunaren egiteko txandakatuz doa. Proiektua ezarri aurretik Elizaldeko eraikinetan zegoen uraren zein energiaren kontsumoa eta 50/50 egitasmoari esker lortutako aurrezpenaren arteko aldeak ikusaraziko dira. Era berean, lehengo kontsumoen eta kontsumo berrien arteko aldeak dirutan ere neurtuko da eta lortutako aurrezpen ekonomiko horren zenbatekoa zein hobekuntzara bideratu erabakiko dute ikasleek. Guztion parte hartzeari esker, ingurumenaren aldeko apustua egiteaz gain herritar aktibo eta arduratsuetan bilakatzea lortuko dugu.



Lortutako datu guztiekin, era berean, institutuaren diagnostikoa prestatuko dugu. Hurrengo pausoa zertan hobetu dezakegun erabakitzea izango da eta helburu zein ekintza zehatzak jasoko dituen plana definitzen joango gara hurrengo hiru hilekoan.